

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

LEHENDAKARITZA

*Azterlan eta Lege Araubide
Zuzendaritza*

Prospekzio Soziologikoen Kabinetea

PRESIDENCIA

*Dirección de Estudios y
Régimen Jurídico*

Gabinete de Prospección Sociológica

Poztasun politikoaren adierazlea Euskadin
Índice de satisfacción política en el País Vasco

2009ko otsaila

Febrero 2009

http://www.euskadi.net/estudios_sociologicos

Aurkibidea / Índice

SARRERA / INTRODUCCIÓN	1
LABURPENA / SÍNTESIS	5
POZTASUN POLITIKOAREN ADIERAZLEA / <i>ÍNDICE DE SATISFACCIÓN POLÍTICA</i>	7
• Poztasun politikoaren adierazlea EAEn / <i>Índice de satisfacción política en la CAPV</i>	8
• Egoeraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn / <i>Índice de satisfacción política coyuntural en la CAPV</i>	11
• Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn / <i>Índice de satisfacción política estructural en la CAPV</i>	14
• Egoeraren eta egituraren poztasun politikoaren tipologia / <i>Tipología de la satisfacción política estructural y coyuntural</i>	17
ZEHAZTASUN TEKNIKOAK / FICHA TÉCNICA	18

Sarrera / Introducción

Helburuak eta Informazioaren Iturria / Objetivos y origen de la Información

Ikerketa honen helburua Poztasun Politikoaren Adierazlea (PPA) ezagutaraztea da, berau kalkulatzeko Lehendakariatzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak egindako inkesta telefoniko bat erabiltzen delarik.

Aurkeztutako emaitzak telefonoz egindako ikerketan erabilitako berariazko galdesortatik datoz. Inkesta hori 2009ko urtarrilaren 14 eta 15 bitartean gauzatu zen.

EAEko egoera aldagaiz aldagai ezagutzeaz gain, herritarren politika arloko poztasun maila bere osotasunean jasotzeko neurri bateratu eta zehatz bat lantzea eragin-korragoa dela uste dugu. Helburu horrekin landu dugu poztasun politikoaren indize bat.

Adierazle hau sortzeko Kataluniako Generalitateko Centre d'Estudis d'Opinió-k argitaratutako Índice de Satisfacción Política (ISP) hartu dugu eredutzat. Honela, EAEko egoera ezagutzeaz gain, Kataluniarekin konparatzeko aukera ere baliatu dugularik.¹

El objetivo de este estudio es dar a conocer el Índice de Satisfacción Política (ISP), para cuyo cálculo se ha utilizado una encuesta telefónica realizada por el Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia.

Los resultados presentados proceden de las preguntas *ad hoc* incluidas en el cuestionario del estudio telefónico. Dicha encuesta se realizó del 14 al 15 de enero de 2009.

Además de conocer la situación de la CAPV indicador a indicador, para captar la satisfacción política de la ciudadanía en su amplitud consideramos más eficiente elaborar una medida unificada y precisa. Con este objetivo desarrollamos un índice de satisfacción política.

Para construir este índice se toma como modelo el Índice de Satisfacción Política (ISP) elaborado por el Centre d'Estudis d'Opinió de la Generalitat de Catalunya. Así, además de conocer la situación de la CAPV, podemos compararla con Cataluña.¹

Adierazlearen izaera / Características del Índice

Adierazle nagusiak inkestatu bakoitzari bere poztasun politikoaren araberako puntuazio zehatza, eskala baten barnean, ematea ahalbidetzen du, ondoren lagina banatzen den bi multzoetako batean kokatzeko: pozik daudenak (adierazlean balore positiboa lortu dutenak) eta pozik ez daudenak (adierazlean balore negatiboa dutenak).

Poztasun Politikoaren Adierazlearen barnean bi portaera osagarri ikus ditzakegu: alde batean, inkesta egin den uneko egoera politikoarekiko poztasunaren edo ez poztasunaren araberako erantzunak eman dituzten inkestatuak; eta, beste aldean, inkestatuen sozializazio eta kultura politikoak ezarritako zenbait baldintzen arabera, politika munduarekiko jarrera egonkorra dutenak (dela poztasunekoa edo ez).

Desberdintasun honetan sakondu nahiak bi azpiindizeren sorrera dakar. Horren kalkulurako indize nagusian erabiltzen diren galderak bi multzotan banatzen dira Egoeraren Araberako Poztasun Politikoaren Adierazlea (EGOPPA) eta Egituraren araberako Poztasun Politikoaren Adierazlea (EGIPPA) neurriak sortuz. Honela, indize horiek ateratzeko erabilitako aldagaiak honakoak dira:

¹ Centre d'Estudis d'Opinió, Índice de Satisfacción Política, 488 zbk. 2009ko martxo. Disponible en Web: <www.gencat.cat/economia/ceo/ceo.html>

El índice general permite dar una puntuación concreta de su satisfacción política a cada encuestado dentro de una escala, para luego ubicarse en uno de los bloques en que se divide la muestra: quienes están satisfechos (aquellos con un índice de valor positivo) y los insatisfechos (aquellos con un índice de valor negativo).

Dentro del Índice de Satisfacción Política se pueden diferenciar dos comportamientos complementarios: de un lado, las y los encuestados que responden en función de la satisfacción o insatisfacción con el momento político coyuntural en el que se realizó la encuesta; y, del otro lado, las y los encuestados, que de acuerdo a una serie de condicionantes de socialización y cultura política, mantienen una actitud constante (de satisfacción o insatisfacción), respecto al mundo político.

La voluntad de profundizar en esta diferenciación traerá la creación de dos subíndices. Para su cálculo, se separan en dos grupos las preguntas utilizadas en el índice principal dando lugar a una medida de la satisfacción coyuntural (ISPC) y una de la estructural (ISPE). De tal forma que las variables empleadas para la elaboración de dichos índices son los siguientes:

¹ Centre d'Estudis d'Opinió, Índice de Satisfacción Política, nº 488, marzo de 2009. Disponible en Web: <www.gencat.cat/economia/ceo/ceo.html>

	EGOPPA	EGIPPA		ISPC	ISPE
o Demokraziarekiko poztasuna		x	o Satisfacción con la democracia		x
o Kanpo eraginkortasun politikoa (bi galdera dira) ²		x	o Eficacia política externa (son dos preguntas) ²		x
o Barne eraginkortasun politikoa ³		x	o Eficacia política interna ³		x
o Euskal politikarien balorazioa		x	o Valoración de los políticos vascos		x
o Alderdi politikoekiko begikotasuna		x	o Simpatía hacia los partidos		x
o Egoera ekonomikoaren balorazioa	x		o Valoración de la situación económica.	x	
o Egoera ekonomikoaren bilakaera azken urtean	x		o Evolución de la situación económica en el último año	x	
o Norberaren egoera ekonomikoaren bilakaera azken urtean	x		o Evolución de la situación económica personal en el último año	x	
o Egoera politikoaren balorazioa	x		o Valoración de la situación política	x	
o Egoera politikoaren bilakaera azken urtean	x		o Evolución de la situación política en el último año	x	

Aldagai horietako bakoitza aldatua da -1 eta 1 arteko baloreak jaso ditzan. Adierazlearen eta azpiindizeen baloreak horiek osatzen dituzten aldagai bakoitzaren batuketatik osatzen dira:

- o PPA: balorazioak -11tik 11rako eskalan dabilta.
- o EGOPPA: balorazioak -5etik 5erako eskalan dabilta.
- o EGIPPA: balorazioak -6tik 6rako eskalan mugitzen dira.

Cada una de las variables es modificada para que reciba valores que oscilan del -1 a 1. Los valores del Índice y de los subíndices son el resultado de la suma de cada una de las variables que la componen:

- o ISP: las valoraciones oscilan en una escala del -11 al 11.
- o ISPC: las valoraciones oscilan en una escala del -5 al 5.
- o ISPE: las valoraciones oscilan en una escala del -6 al 6.

² Izenburu honen azpian daude honako bi baieztapenen erantzunak: "1. Uste dut politikariek kontuan hartzen dutela jendeak pentsatzen duena" eta "2. Politikariek beren onura bakarrik bilatzen dute".

³ Baieztapen honen erantzuna barneratzen du: "Kaleko jendeak eragin dezake politikariek egiten dituzten gauzetan".

² Bajo este título se incorporan las respuestas a las dos enunciados siguientes: "1. Creo que los políticos tienen en consideración lo que piensa la gente", y "2. Los políticos sólo buscan su propio beneficio".

³ Incluye la respuesta al enunciado: "La gente de la calle puede influir en lo que hacen los políticos".

Kolektibokako azterketa / Análisis por colectivos

Inkestaren datuekin osatutako Poztasun Politikoaren Adierazlea (PPA) biztanleria guztirako ez ezik, **segmentazio soziodemografiko eta soziopolitikoaren arabera** ere aztertu da. Ondokoak dira aldagai soziodemografiko eta jarrerazko horiek (sortutako azpitaldeak letra etzanean azaltzen dira):

- Lurraldea: *Araba, Bizkaia eta Gipuzkoa.*
- Sexua: *gizonezkoa eta emakumezkoa.*
- Adin taldeak: *18-29, 30-45, 46-64 eta >=65.*
- Lan egoera: *lanean, langabezian, etxeko lanetan, ikasten gehienbat eta jubilatua, pentsioduna edo ezindua.*
- Euskararen ezagutza: *oso ondo, nahikoa ondo, zerbait, hitz batzuk eta batere ez.*
- Euskal herritar-espainiar ardatza: *euskal herritarra bakarrik, espainiarra baino euskal herritarragoa, euskal herritarra bezain espainiarra, euskal herritarra baino espainiarragoa, espainiarra bakarrik eta ed-ee.*
- Ezker-eskuin ardatza: *oso ezkerrekoa*, ezkerrekoa, zentro ezkerrekoa, zentrokoa, zentro eskuinekoa, eskuinekoa, oso eskuinekoa eta ed-ee.*
- Politikarekiko interesa: *handia, nahikoa, gutxi eta batere ez.*
- Begikotasun politikoa (begikotasunik handiena eragiten dion partidua): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, Ezker Abertzalea, Aralar, EA, EB, UPD*, beste alderdi batzuk*, bat ere ez, denak berdin* eta ed/ee.*

El Índice de Satisfacción Política (ISP) elaborado a partir de los datos de la encuesta es analizado, no sólo desde los totales poblacionales, sino también en base a **segmentaciones sociodemográficas y sociopolíticas**. Las variables diferenciadoras consideradas (y los subcolectivos formados, que aparecen en cursiva) son las siguientes:

- Territorio: *Araba, Bizkaia y Gipuzkoa.*
- Sexo: *varón y mujer.*
- Grupos de edad: *18-29, 30-45, 46-64 y >=65.*
- Ocupación principal: *trabajando, en paro, labores de casa, principalmente estudiando y jubilado/a, pensionista o incapacitado/a.*
- Conocimiento de euskera: *correctamente, bastante bien, algo, sabe palabras y Ns/nc.*
- Eje vasco-español: *únicamente vasco/a, más vasco/a que español/a, tanto vasco/a como español/a, más español/a que vasco/a, únicamente español/a y Ns/nc.*
- Eje izquierda derecha: *extrema izquierda*, izquierda, centro izquierda, centro, centro derecha, derecha, extrema derecha y Ns/nc.*
- Interés por la política: *mucho, bastante, poco y nada.*
- Simpatía política (partido por el que siente más simpatía): *EAJ/PNV, PSE-EE, PP, Izquierda Abertzale, Aralar, EA, EB, UPD*, otros partidos*, ninguno, todos por igual* y ns/nc.*

* Oso ezkerrekoa, UPD, "beste alderdi batzuk" eta "denak berdin" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatuko, talde horiek osatzen dituztenak oso gutxi baitira lantzen ari garen laginean.

* Los datos relativos a las categorías extrema izquierda, UPD, "otros partidos" y "todos por igual" no serán comentados debido al escaso número de efectivos pertenecientes a estos grupos recogidos en la muestra.

Laburpena / Síntesis

ZEIN DA POZTASUN POLITIKO OROKORRAREN MAILA EAEn?

EAEko herritarrek euren politikarekiko poztasuna bere osotasunean baloratzerakoan balorazio negatiboa eskaintzen dute: pozik ez daudenak pozik daudenak baino dezente gehiago dira (%19,6 pozik daude eta %80,4 ez daude pozik).

Herritarren politika arloko poztasun edo asebetetze maila bere osotasunean jasotzeko neurri bateratu eta zehatza lortzeko helburuarekin Poztasun Politikoaren Adierazlea (PPA) landu dugu. Honela, 2009ko urtarrilari dagozkion datuekin Euskal Autonomia Erkidegoko Poztasun Politikoaren Adierazlea (PPA) kalkulatu dugu. EAEko Adierazlea negatiboa da: -1,75 puntukoa.

ETA ZEIN EGOERA ETA EGITURA POLITIKOENKIKO POZTASUN MAILA?

Herritarrek ez daude pozik ez inkesta egin zen uneko egoerarekin ezta sistema politikoaren egiturarekin ere. Inkesta egin zeneko egoera politikoarekin pozik ez zeudenak, herritarren %81,8 ziren eta egiturarekin pozik ez zeudenak %51,6; aldiz, egoerarekin pozik zeudenak %18,2 ziren eta egiturarekin %48,4.

Honela, poztasun politikoaren bi azpiindize landu dira, egoerari eta egiturari dagozkionak bereiztuz. Bi indize horien emaitzak ere negatiboak dira. Alde batetik, Egoeraren Poztasun Politikoaren Adierazlea (EGOPPA) -1,59 puntukoa da eta beste aldetik, Egituraren Poztasun Politikoaren Adierazlea (EGIPPA) -0,16 puntukoa da.

EAEEn eta Katalunian pozik ez dauden herritarrek pozik daudenak baino gehiago diren arren, indize nagusia zein azpiadierazleak Katalunian EAEEn baino negatiboagoak dira.

NOLAKOA DA POZTASUN POLITIKOAREN ARABERAKO TIPOLOGIA?

Politikarekiko poztasunaren bi aldagaien gurutzaketatik (hots, egoerazkoa eta egiturazkoa) lau herritar mota biltzen dituen tipologia sortzen da. Hauek dira sortzen diren multzoak:

- Pozik dauden gizarteratuak: egitura politikoaren eta egoeraren arabera pozik daudenak, herritarren %11,1ek osatzen dute multzo hau.
- Pozik ez dauden gizarteratuak: egoeraren arabera pozik ez daudenak eta egituraren arabera pozik daudenak, herritarren %37,3 dira.
- Pozik dauden urrunduak: egituraren arabera pozik ez dauden bitartean egoeraren arabera pozik daudenak, multzo hau herritarren %7,1ek osatzen dute.
- Pozik ez dauden urrunduak: egituraren eta egoeraren arabera pozik ez daudenak, herritarren %44,5ek osatutako multzo nagusia.

¿CUÁL ES EN NIVEL DE SATISFACCIÓN POLÍTICA GENERAL EN LA CAPV?

La ciudadanía de la CAPV ofrece una valoración negativa cuando se les solicita valorar su satisfacción política general: quienes están insatisfechos(as) son más que quienes están satisfechos (el 19,6% están satisfechos y el 80,4 están insatisfechos).

Con el objetivo de lograr una medida unificada y precisa para captar la satisfacción política de la ciudadanía en su amplitud hemos elaborado el Índice de Satisfacción Política (ISP). Hemos calculado el Índice de Satisfacción Política (ISP) con los datos referidos a enero de 2009. El Índice de la CAPV es negativo: -1,75.

¿Y CUÁL EL NIVEL DE SATISFACCIÓN CON LA COYUNTURA Y LA ESTRUCTURA POLÍTICA?

La ciudadanía no está satisfecha con la coyuntura del momento en que se realizó la encuesta ni con la estructura del sistema político. Quienes no estaban satisfechos(as) con la situación política eran el 81,8% de la población y quienes no lo estaban con la estructura, el 51,6%; en cambio, quienes estaban satisfechos(as) con la coyuntura eran el 18,2% y con la estructura el 48,4%.

Así, se han elaborado dos subíndices de la satisfacción política general, diferenciando la coyuntura y la estructura. Los resultados de estos dos índices también son negativos. Por un lado, el Índice de Satisfacción Política Coyuntural (ISPC) es de -1,59 puntos y, por otro lado, el Índice de Satisfacción Política Estructural es de -0,16 puntos.

Aunque las y los ciudadanos que no están satisfechos(as) son más que quienes están satisfechos(as) tanto en Cataluña como en la CAPV, tanto el índice principal como los subíndices son más negativos en Cataluña.

¿CÓMO ES LA TIPOLOGÍA DE LA SATISFACCIÓN POLÍTICA?


A partir del cruce de las dos variables de la satisfacción política, la estructural y la coyuntural, se elabora una tipología que clasifica cuatro tipos de individuos. Estos son los grupos que se forman:

- Integrados satisfechos: satisfechos con la coyuntura y con la estructura políticas, este grupo está formado por el 11,1% de la ciudadanía.
- Integrados insatisfechos: satisfechos con la estructura pero insatisfechos con la coyuntura, son el 37,3% de la población.
- Satisfechos desvinculados: insatisfechos con la estructura pero satisfechos ante el momento coyuntural, está formado por el 7,1% de la ciudadanía.
- Insatisfechos desvinculados: están insatisfechos tanto estructuralmente como coyunturalmente, son el grupo principal formado por el 44,5% de la población.

Poztasun politikoaren adierazlea / *Índice de satisfacción política*

- Poztasun politikoaren adierazlea EAEn / *Índice de satisfacción política en la CAPV*
- Egoeraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn / *Índice de satisfacción política coyuntural en la CAPV*
- Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn / *Índice de satisfacción política estructural en la CAPV*
- Egoeraren eta egituraren poztasun politikoaren tipologia / *Tipología de la satisfacción política estructural y coyuntural*

Poztasun politikoaren adierazlea EAEn
Índice de satisfacción política en la CAPV
 (Gutzizkoak eta Kataluniarekiko alderaketa / *Total es y comparación con Cataluña*)




- Pozik daudenak EAEko herritarren %19,6 dira eta pozik ez daudenak, ordea, %80,4. Pozik ez daudenen aldeko diferentzia 60,8 puntukoa da.
- Urtarrileko datuen arabera, egungo Poztasun Politikoaren Adierazlea negatiboa da: -1,75 puntukoa.
- 2009ko urtarrilean Kataluniako PPA -2,51 puntukoa da, hortaz, pozik ez daudenak gurean baino gehiago dira.

- La población de la CAPV que está satisfecha es el 19,6% y quienes están insatisfechos, por el contrario, el 80,4%. La diferencia a favor de las y los insatisfechos es de 60,8 puntos.
- Según los datos de enero, en la actualidad el Índice de Satisfacción Política se sitúa en valores negativos: -1,75 puntos.
- En enero de 2009 el ISP de Cataluña se situó en -2,51 puntos, por lo tanto, quienes están insatisfechos son más que entre nosotros.

Poztasun politikoaren adierazlea EAEn
Índice de satisfacción política en la CAPV
 (Kolektiboka I / *Por colectivos I*)

Poztasun politikoaren adierazlea (PPA), aldagai soziodemografikoen arabera / Índice de satisfacción política (ISP), segmentación sociodemográfica




Poztasun Politikoaren Adierazlearen arabera talde bakar batean ere ez dago jendea pozik sistema politikoarekin. Alabaina, aldagai soziodemografikoen arabera kritikoenak honakoak dira: gipuzkoarrak, langabezian daudenak eta euskara oso edo nahikoa ongi ezagutzen dutenak (izatez, pozik eza euskararen ezagutza mailarekin batera igotzen da).

En función del Índice de Satisfacción Política en ningún colectivo está la gente satisfecha con el sistema político. Aún así, las y los más insatisfechos según las variables sociodemográficas son los siguientes: las y los guipuzcoanos, quienes están en paro y conocen correctamente o bastante bien el euskera (de hecho, la insatisfacción aumenta según se incrementa el conocimiento del euskera).

Poztasun politikoaren adierazlea EAEn
Índice de satisfacción política en la CAPV
 (Kol ektiboka II / *Por colectivos II*)

Poztasun politikoaren adierazlea (PPA), jarrera politikoaren arabera / Índice de satisfacción política (ISP), segmentación según actitudes políticas




* Oso ezkerrekoa, UPD, "beste alderdi batzuk" eta "denak berdin" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatuko, talde horiek osatzen dituztenak oso gutxi baitira lantzen ari garen laginean / Los datos relativos a las categorías extrema izquierda, UPD, "otros partidos" y "todos por igual" no serán comentados debido al escaso número de efectivos pertenecientes a estos grupos recogidos en la muestra.

- Euskal herritarra baino espainiarragoa edo bakarrik espainiar sentitzen direnak eta ezker eskuin ardatzean bere burua kokatu ez dutenak dira gainerakoak baino kritikoago sistema politikoarekin. Alabaina, zenbat eta ezkererago joan, orduan eta kritikoago dira.
- Politikarekiko interesa eta begikotasuna kontuan hartuz, interes handia edo batere ez dutenak, nabarmenen alderdi bat ere gustuko ez dutenak eta Ezker Abertzalearen jarraitzaileak dira poztasun gutxien adierazi dutenak.

- Quienes se identifican como únicamente españoles o más españoles que vascos, y quienes no se sitúan en el eje ideológico son más críticos que el resto con el sistema político. Asimismo, a medida que se tiende hacia la izquierda, aumenta el porcentaje de insatisfechos.
- En función del interés y la simpatía política, quienes están muy o nada interesados por ella, quienes no les gusta ningún partido y, las y los simpatizantes de la Izquierda Abertzale son quienes menos satisfacción muestran.

Egoeraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn Índice de satisfacción política coyuntural en la CAPV

(Gutzizkoak eta Kataluniarekiko alderaketa / Total es y comparación con Cataluña)



☑ Indize nagusiaren kasuan bezala, pozik ez dauden ehunekoak pozik daudenak baino dezente handiagoak dira, %81,8 eta %18,2, hurrenez hurren. Pozik ez dauden eta pozik dauden arteko diferentzia 63,6 puntukoa da.

☑ Egoeraren araberako Poztasun Politikoaren Adierazlearen balorea EAEn -1,59 puntukoa da.

☑ Katalunian indize honen balorea EAEkoa baino okerragoa da: -2,00 puntukoa.

☑ Como en el caso del índice principal, la proporción de insatisfechos supera ampliamente el de los satisfechos, 81,8% frente a 18,2%. La diferencia entre insatisfechos y satisfechos es de 63,6 puntos.

☑ El valor del Índice de Satisfacción Política Coyuntural en la CAPV se sitúa en -1,59 puntos.


☑ El valor de este índice en Cataluña es peor que el de la CAPV: -2,00 puntos.

Egoeraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn Índice de satisfacción política coyuntural en la CAPV

(Kolektiboka I / Por colectivos I)

Egoeraren araberako poztasun politikoaren adierazlea (EGOPPA), aldagai soziodemografikoen arabera /

Índice de satisfacción política coyuntural (ISPC), segmentación sociodemográfica




Inkesta egin den uneko egoera politikoarekin herritarrak pozik ez daude talde bakar batean ere (balorazio guztiak negatiboak ziren). Alabaina, egoera politikoarekiko gipuzkoarrek, gizonek, 30 eta 64 urte artekoek, langabezian daudenek eta euskaraz soilik hitz batzuk dakizkitenek gainontzekoek baino poztasun maila pixka bat txikiagoa adierazi dute.

En ningún colectivo están satisfechos las y los ciudadanos con la coyuntura política del momento en que se realizó la encuesta (todas las valoraciones eran negativas. De cualquier forma, las y los guipuzcoanos, los hombres, quienes tienen de 30 a 64 años, las y los parados y quienes saben sólo algunas palabras de euskera muestran un nivel de satisfacción ligeramente menor que el resto.

Egoeraren arabera poztasun politikoaren adierazlea EAEn
Índice de satisfacción política coyuntural en la CAPV
 (Kolektiboka II / Por colectivos II)

Egoeraren arabera poztasun politikoaren adierazlea (EGOPPA), jarrera politikoen arabera /
Índice de satisfacción política coyuntural (ISPC), segmentación según actitudes políticas




* Oso ezkerrekoa, UPD, "beste alderdi batzuk" eta "denak berdin" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatu, talde horiek osatzen dituztenak oso gutxi baitira lantzen ari garen laginean / Los datos relativos a las categorías extrema izquierda, UPD, "otros partidos" y "todos por igual" no serán comentados debido al escaso número de efectivos pertenecientes a estos grupos recogidos en la muestra.

Inkesta egin den uneko egoera politikoarekin herritarrak pozik ez daude talde bakar batean ere (balorazio guztiak negatiboak ziren). Edozelan, egoerarekin kritikoenak politikarekin oso interesaturik daudenak, euskal herritar baino espainiarrago edo bakarrik espainiar sentitzen direnak eta Ezker Abertzalearen edo PPren jarraitzaileak dira.

En ningún colectivo están satisfechos las y los ciudadanos con la coyuntura política del momento en que se realizó la encuesta (todas las valoraciones eran negativas). En cualquier caso, las y los más críticos con la situación son las y los muy interesados por la política, quienes se sienten preferentemente o únicamente españoles y, las y los simpatizantes de la Izquierda Abertzale o del PP.

Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn
Índice de satisfacción política estructural en la CAPV
 (Gutzizkoak eta Kataluniarekiko alderaketa / *Total es y comparación con Cataluña*)



Indize nagusiaren eta Egoeraren araberako adierazlearen kasuan bezala, sistema politikoarekin pozik ez daudenak pozik daudenak baino gehiago dira, %51,6 eta %48,4, hurrenez hurren.

EAEn Egituraren araberako Poztasun Politikoaren Adierazlea -0,16 puntukoa da.

Kasu honetan ere Kataluniako adierazlea EAEkoa baino negatiboagoa da, -0,51 puntu -0,16 punturen aurrez aurre.

Al igual que en el caso del índice principal y del coyuntural, con respecto al sistema político también quienes están insatisfechos son más que quienes están satisfechos, un 51,6% y un 48,4%, respectivamente.

El Índice de Satisfacción Política Estructural en la CAPV es de -0,16 puntos.


En este caso también el índice de Cataluña es más negativo que el de la CAPV, -0,51 puntos frente a -0,16 puntos.

Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn Índice de satisfacción política estructural en la CAPV

(Kolektiboka I / Por colectivos I)

Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea (EGIPPA), aldagai soziodemografikoen arabera /

Índice de satisfacción política estructural (ISPE), segmentación sociodemográfica



✓ 64 urte gorakoek, ikasle edo jubilatuak, euskaraz soilik hitz batzuk edo batere ez dakitenek sistema politikoaren egituraren balorazio positiboa eman dute; bizkaitarren artean berdinduta daude balorazio positiboa eta negatiboa dutenak.


✓ Haatik, egitura politikoarekin kritikoenak honakoak dira: gipuzkoarrak, gaztedia, langabetuak eta etxeko lanetan aritzen direnak, euskaraz oso edo nahikoa ondo dakitenak.

✓ Las y los mayores de 64 años, las y los estudiantes o jubilados, quienes solo conocen algunas palabras o nada de euskera muestran valoraciones positivas de la estructura del sistema político; las valoraciones positivas y negativas están al par entre las y los vizcaínos.

✓ Por el contrario, las y los más críticos con la estructura política son los siguientes: las y los guipuzcoanos, la juventud, las y los parados, quienes realizan labores del hogar y quienes hablan correctamente o bastante bien euskera.

Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea EAEn Índice de satisfacción política estructural en la CAPV (Kolektiboka II / Por colectivos II)

**Egituraren araberako poztasun politikoaren adierazlea (EGIPPA), jarrera politikoen arabera/
Índice de satisfacción política estructural (ISPE), segmentación según actitudes políticas**



* Oso ezkerrekoa, UPD, "beste alderdi batzuk" eta "denak berdin" kategoriei dagozkien datuak ez dira komentatu, talde horiek osatzen dituztenak oso gutxi baitira lantzen ari garen laginean / Los datos relativos a las categorías extrema izquierda, UPD, "otros partidos" y "todos por igual" no serán comentados debido al escaso número de efectivos pertenecientes a estos grupos recogidos en la muestra.

- Espainiarra baino euskal herritarragoa edo euskal herritar bezain espainiar sentitzen direnek, zentro ezkerretik eskuinera bitartean kokatu direnek eta politikarekin nahiko interes dutenek sistema politikoaren egituraren balorazio positiboa eman dute. Balorazio positiboan, aldiz, EAJren, EBren, PSE-EEren eta PPren jarraitzaileek adierazi dituzte.
- Haatik, egitura politikoarekin kritikoenak honakoak dira: euskal herritarra bakarrik sentitzen direnak, ezker-eskuin ardatzean kokatu ez direnak, politikarekin batere interesik ez dutenak, Ezker Abertzalearen jarraitzaileak eta nabarmenen alderdi bat ere gogoko ez dutenak.

- Quienes se sienten más vascos que españoles o tanto vascos como españoles, se sitúan en posiciones que van de centro-izquierda a derecha y tienen bastante interés en la política muestran valoraciones positivas de la estructura del sistema político. Las valoraciones más positivas, en cambio, las realizan quienes simpatizan con PN, EB, PSE-EE y PP.
- Por el contrario, las y los más críticos con la estructura política son los siguientes: quienes se sienten únicamente vascos, no se sitúan en el eje izquierda-derecha, están nada interesados en la política, las y los simpatizantes de la Izquierda abertzale y sobre todo quienes no les gusta ningún partido político.

Egoeraren eta egituraren poztasun politikoaren tipologia *Tipología de la satisfacción política estructural y coyuntural* (Gutzizkoak eta Katal uniarekiko alderaketa / *Totales y comparación con Cataluña*)

		Egoera / Coyuntura					
		POZIK / SATISFECHOS		EZ POZIK / INSATISFECHOS			
Egitura / Estructura	POZIK / SATISFECHOS	POZIK DAUDEN GIZARTERATUAK INTEGRADOS SATISFECHOS		11,1 % 8,2 %	POZIK EZ DAUDEN GIZARTERATUAK INTEGRADOS INSATISFECHOS		37,3 % 32,5 %
	EZ POZIK / INSATISFECHOS	POZIK DAUDEN URRUNDUAK SATISFECHOS DESVINCULADOS		7,1 % 5,7 %	POZIK EZ DAUDEN URRUNDUAK INSATISFECHOS DESVINCULADOS		44,5 % 53,6 %

Pozik dauden gizarteratuak: egituraren eta egoeraren arabera pozik daudenak / **Integrados satisfechos:** satisfechos estructurales y coyunturales.

Pozik ez dauden gizarteratuak: egituraren arabera pozik eta egoeraren arabera pozik ez daudenak / **Integrados insatisfechos:** satisfechos estructurales e insatisfechos coyunturales.

Pozik dauden urrunduak: egituraren arabera pozik ez daudenak eta egoeraren arabera pozik daudenak / **Satisfechos desvinculados:** insatisfechos estructurales y satisfechos coyunturales.

Pozik ez dauden urrunduak: egituraren eta egoeraren arabera pozik ez daudenak / **Insatisfechos desvinculados:** insatisfechos estructurales y coyunturales.

Goian azaldu dugun herritarren poztasunaren tipologia politikarekiko poztasunaren bi aldagaien gurutzaketatik, egiturazkoa eta egoerazkoa, sortzen da. Horren emaitzatzat, lau herritar mota sailkatu ditzakegu.:

- Pozik dauden gizarteratuak dira egituraren arabera asebeteta daudenak, beraz, sistema politikoan gizarteratuak eta gainera, egoera politikoaren aurrean pozik agertzen direnak. Horiek herritarren %11,1 dira.
- Pozik ez dauden gizarteratuak dira egituraren arabera asebeteta daudenak baina inkestaren uneko egoera politikoarekin pozik ez daudenak. Herritarren %37,3k osatzen dute multzo hau.
- Pozik dauden urrunduak dira nahiz eta egitura politikoarekin asebetetik ez egon, uneko egoera politikoarekin pozik daudenak. Multzo honetan herritarren %7,1 daude.
- Pozik ez dauden urrunduak dira pozik ez daudenak egiturarekin ezta egoerarekin ere. Multzo nagusia da, herritarren %44,5ek osatzen duena.

Pozik daudenen ehunekoek pixka bat altuagoak dira EAEn Katalunian baino, bai egoerarekin baita egiturarekin ere. Gainera, pozik ez dauden urrunduak gehiago dira Katalunian EAEn baino (%53,6 eta %44,5, hurrenez hurren), nahiz eta bietan osatzen duten multzo nagusia, pozik ez dauden gizarteratuak EAEn Katalunian baino gehiago diren bitartean (%37,3 eta %32,5, hurrenez hurren).

Beraz, batean zein bestean politikarekin pozik ez daudenak gehiengoa izan arren (%81,8 EAEn eta %86,1 Katalunian), EAEn herritarrak sistema politikoan zertxobait gizarteratuagoak daudela dirudi.

La tipología de la satisfacción ciudadana que hemos descrito arriba se ha elaborado a partir del cruce de las dos variables de la satisfacción política, la estructural y la coyuntural. Como resultado, se pueden clasificar cuatro tipos de individuos:

- Las y los integrados satisfechos son quienes están satisfechos estructuralmente, por lo tanto, integrados en el sistema político y además, se muestran satisfechos ante la coyuntura política. Estos son un 11,1% de la ciudadanía.
- Las y los integrados insatisfechos son quienes están satisfechos estructuralmente, pero se sienten insatisfechos ante la situación política coyuntural del momento de la encuesta. Este colectivo está formado por el 37,3% de la población.
- Las y los desvinculados satisfechos son quienes a pesar de no estar satisfechos estructuralmente, lo están con la coyuntura política del momento. En este grupo están el 7,1% de la ciudadanía.
- Los desvinculados insatisfechos son quienes no están satisfechos estructuralmente ni coyunturalmente. Este es el colectivo más numeroso, formado por el 44,5% de la población.

Los porcentajes de satisfacción, tanto con la coyuntura como con la estructura, son ligeramente superiores en la CAPV que en Cataluña. Además, en Cataluña son más que en la CAPV los desvinculados insatisfechos (53,6% frente a 44,5%), aún cuando forman el grupo mayoritario en los dos casos, mientras que los integrados insatisfechos son más en la CAPV que en Cataluña (37,3% frente a 32,5%).

Por lo tanto, aunque en los dos territorios las y los políticamente insatisfechos son mayoría (81,8% en la CAPV y 86,1% en Cataluña), en la CAPV parece que la población está ligeramente más insertada en el sistema político.

Zehaztasun teknikoak / *Ficha técnica*

Informazio bilketa **2009ko urtarrilaren 14tik 15era bitartean** egin zen –biak barne-galdesorta egituratu eta itxia erabiliz, Euskal Autonomia Erkidegoko lagin adierazgarri bati telefonoz egindako banakako elkarrizketen bidez.

Ikerketaren diseinua, emaitzen azterketa eta txostenaren idazketaren ardura Eusko Jaurlaritzaren Lehendakariitzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteari dagozkio soilik. Informazio bilketa San Blas, 11, C eraikina - 2., Gojain industrialdea, 01171 Legutiano (Araba) helbidean dagoen *Gizaker SL* enpresak egin zuen.

18 urte edo gehiagoko biztanleriaren **laginak** 600 elkarrizketa bildu zituen Euskal Autonomia Erkidego osorako, 140 Araban, 280 Bizkaian eta 180 Gipuzkoan. Datuak ondoren haztatu dira lurraldeetako biztanleriaren banaketa errearen arabera.

Gizabanakoen hautaketa prozedura polietapiko eta estratifikatuaren bidez egin zen, 20na inkestaz osaturiko ausazko ibilbideak erabiliz –30 laginketa abiapunturekin–, ondoren pertsonak sexuaren, adinaren eta lan egoeraren araberrako kuoten bidez aukeratuz.

Lagin errorearen estimazioa $\pm 4,1\%$ koa da $95,5\%$ eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik.

La recogida de información se realizó entre **el 14 y el 15 de enero de 2009** -ambos inclusive- a través de entrevista individual mediante cuestionario estructurado y cerrado, realizada por teléfono a una muestra representativa de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

El **diseño de la investigación**, el **análisis** de los **resultados** y la **redacción del informe** es responsabilidad exclusiva del Gabinete de Prospección Sociológica de la Presidencia del Gobierno Vasco. La recogida de información fue realizada por la empresa *Gizaker S.L.*, sita en San Blas, 11, Edificio C-2º, Polígono Industrial Gojain, 01171 Legutiano (Araba).

La **muestra**, dirigida a una población de 18 o más años, recogió un total de 600 entrevistas: 140 en Araba, 280 en Bizkaia y 180 en Gipuzkoa. Los datos han sido ponderados a posteriori según la distribución real de la población por territorios.

La **selección de las personas** a entrevistar se realizó por procedimiento polietápico y estratificado, mediante rutas aleatorias –a partir de 30 puntos de inicio- de 20 encuestas cada una, con selección posterior de las personas según cuotas de sexo, edad y situación laboral.

El **error muestral** se estima en un $\pm 4,1\%$ para un nivel de confianza del $95,5\%$ y siendo $p=q=0,5$.